

## GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 1

### Getxo Erdi Aroan

Getxoko lehen lekukotasun historikoak Elexalde inguruan kokatzen dira. Izan ere badirudi XII. mendean bazegoela hemen auzunea

- Zein da auzoaren izena? Auzoari gaur egun askok **Andra Mari** esaten diote. Badirudi izen desegokia dela, izan ere egokiagoa litzateke **Elexalde** esatea. Garai batean Elexalde elizaren inguruko etxeei esaten zitzaien eta auzoari Getxo eta auzotarrak, getxoztarrak.

- Nondik dator **Getxo** izena? Getxo izeneko dorretxea egon zen gaur egun Jauregi baserria dagoen kokapenetik beherago. Erdi aroko bandoen gerrak egon ziren Euskal Herrian (oñaztarrak eta ganboatarrak). Getxon leinuen aipamenak daude XIV. mendetik aurrera. Martiartu dorretzekoen familiakoak ziren Getxo dorretzekoak (horregatik armarri berdina daukate).

Leinuen kontua konplexua eta aldakorra izan bazen ere laburpen erraz batekin esan dezakegu inguruko jauntxoak eta ondorioz herritarrak honela banatzen zirela.

Oñaztarrak: Martiartu, Butroe, Legizamon, Deusto, Mendoza, Getxo....

Ganboatarrak: Iburguen, Billela (Mungiakoak), Abendaño, Gebara, ...

Bakoitzak bere interesen arabera jokatzeko zuen batez ere baina lehenengoak sarri esan da Gaztelarekin harremanak sakontzea bilatzen zutela eta bigarrenak Nafarroako erresumarekin.

## GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 2

### Eliza (historia)

XII. mendekoa da baina garai honetako aztarnarik ez dago. XVI. mendeko elementu batzuk dauden arren -leiho erromanikoa- (Goierriko aldean) gaur egun ikusten dugun gehiena XVIII. mendekoa da (barrokkoa). Dokumentazioari dagozkionez, Garibayk esaten du XI. mendean eliza bat zegoela (eliza "propia", pribatua) Getxo familiarena, baina XIV. Mendera arte ez dago benetako dokumentazioa: eliza **Getxo-Martiartu** familiaren eskuetan zegoela (eliza pribatua edo).

Garai batean parroquia bakarra zegoen Getxon: Andra Mari, eta bertara elizkizun nagusietara auzo guztietakoak etortzen ziren. Portutik Andra Mari elizarainoko bideari, "**errepidea**" edo '**camino real**' esaten zioten. 1808an **Portu Zaharreko** (orduan **Algorta** izena zuen auzoak) San Nikolas ermita parroquia bihurtu zuten.

Elizak bi ate ditu: alde batetik "Goierrikoak" sartzen ziren (Batzokia dagoen aldetik) eta bestetik "Beerrikoak" (Bentara ematen duen aldetik).

**Goierri** (goiko baserriak: **Diliz, Arteaga, Iberre**), **Be(h)erri** (**Jauregi, Goñi, Sarri**, ...). Guztia Getxo auzoa zen eta Goierri/Beerri zonaldeak.

[Eliz aurrean azaltzeko:]

Elizaren sarreran dagoen armarria Getxoko lehen armarria da (Getxo dorretxe zaharretik hartutakoa ei da), XVI. mendekoa da. Historia: Zilarrezko zelaia, haritz berdea (BIZKAIA), otsoa zeharkatzen (GERRA, Lope). Bi galdara beltz (Pendón y Caldera, erregeak) urrezko kateetatik zintzilik. Armarria: Martiartu=Getxo. Getxo etxe zaharretik hartutakoa (1697an eraitsi zen etxe hori). "Leloan zer agertzen da?"-

Kaltea dagianak bizarra lepoan-. Zer esan gura du? Txarto ibiliz gero, edo okerren bat eginez gero, urduri eta atzera begira biziko zarela. ( kontuan izan behar da bizkaieraz lepoa 'bizkarra' dela).

Getxoko gunea izan zen Elexaldeko eliza honetan egiten ziren batzarrak, elizpean, dagoen harrizko mahaiaren (Pielarria) inguruan. Gaur egun dagoen mahaia berria da baina garai batean egon zen mahaia gogoratzeko jarri zuten. Getxo ez da hiribildua, elizatea da 'anteiglesia', eta elizaren aurrean batzen ziren auzotarrak, lehen "udalbatza",.

Egungo eliza baino lehenago Andra Mariaren monasterioa izan zen Getxon. XVI. mendean eliza berria eraiki zuen Martin Ortiz Martiartukok. Eliz honen barruan zuten baserriek bere hilobia eta bertan hilobiratu zen XIX. mendearen erdialde arte. 1868an eliza konpontzean egurrezko zorua jarri eta hilobiak betiko itxi ziren. XX. mendean 1911an kanpandorrearen azpian zegoen hilerria gaur egun dagoen lekura eraman zuten eta antza hemen bakarrik masoi baten hilobia utzi zuten.

XVII. mendean gaur egun bitxiak izan daitezkeen arauak zeuden elizara sartzean. Gizonak eta emakumeak bereizirik zeuden elizan eta emakumeek burua estaltzeaz gain debekatuta zuten jaun hartzea: "en desnudez de pechos, aunque los llevaran cubiertos con velos y otras cosas"(titiak agerian nahiz eta beloz eta bestelakoaz ezkutatu).

Dorrean ikus daitezke 166 Getxoko **aldetxeetako** izenak. Etxeen zerrenda hau, elizari hamarrena ordaintzen ziotenek osatzen dute.

Hilerria: Dakizuenez, antzina hilerriak eliza ondoan zeuden. Hasieran Andra Mari elizaren kanpo aldean kokatuta zegoen, eliz ondoan, gero elizaren barruan 1811ra arte.(Eliz barruan 127 hilobi (etxe bakoitzeko bana) +hezurtegia (atzerritarrentzako) zeuden.

Elizak, orokorrean, leku berezietan eraikitzen ziren (askotan muino batean, auzoa edo herria menperatuz, hemendik ikus daiteke Getxo gehiena: **Aingeru ermita**, **Benta** -azken mendeko leku garrantzitsua-, desagertutako **Jauregi** baserria eta Getxoko dorrea). Menpekotasun hori ez da bakarrik teorikoa. Badakigu lehen eliza-ahoetatik udalerriko erabakiak hartzen zirela eta lehengo udaletxeak inguruan sortu zirela (kasu honetan, gaur egungo batzokia zen Udaletxe zaharra, frogatu ahal ez izan arren).

### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 3

Noraino iristen da Getxo auzo moduan? Edadekoek esaten dutenez **Arrigunaga** ingurua eta gaur egungo **Anbulategia** (Bidezabalen dagoena) Getxo direla. Getxo **Benantzioseraino** iristen da. Hortik aurrerakoari gaur egun **Algorta** esaten zaio. Garai batean Algorta esan beharrean **Alango** eta **Alangoeta** esaten zitzaion (adibidez Trinitario elizaren aldamenean zegoen San Martin de Alango: Alangoko Done Martie). Algorta gaur egungo **Portuzarrari** esaten zitzaion. Gero XX. Mende hasieran Portu berria egitean (**Arriluzekoa**) Algortako portua zahartzat jotzen hasi ziren eta Portuzarra deitura zabaldu zen. Beraz garai bateko auzoak: **Getxo, Alango, Algorta, Gobela...**

### **Elexalde** (Auzoa)

Bizkaiko elizateetako ohitura da eliza nagusia ("matriz" deitu izan zaiona zaharrena izateagatik) dagoen auzoari **Elexalde** deitzea, kasu askotan erdaraz -x- soinua galtzean Elejalde bihurtu zirenak maila ofizialean. Getxoko kasuan hagianimoak indarra izan zuen eta demokraziaren hastapenetan, zoritxarrez, izen zaharra

indarberritu beharrean Andra Mari izena ofizialdu zen. Hori dela eta **Elexalde** izena etxe batean baino ez da gorde. Bide batez gogoan izan behar dugu izatez Getxo izena hemendik zabaldu zela udalerrri osoa hartzeko eta horren

#### **Elexalde** (Etxea)

Antzinan ingurua izendatzeko erabiltzen zen Elexalde izena etxe honetan baino ez da gorde.

#### **Aingeruaren etorbidea Telletxetik** Aingeruaren basilizara doan bidea.

Auzo, edo eta kale bati izena ematen dion Aingeru edo hobeki esanda Aingeru Guardakoari eskeinitako basiliza hau 1649an eraiki zuen Andra Maria elizako erretoreak. Euskal Herrian ohikoa da basilizak bide ertzetan edo bide gurutzetan egotea bidaiariei babesa emateko. Bertan abere azoka egiten da dagokion egunean, urriaren 2an.

Aingeru guardakoaren basilizak bi irudi ditu, Aingeru guardakoa eta Errosarioko ama. Santutxua da (erdarazko 'humilladero'). Ermita mota hau bide ertzetan, eta bide gurutzetan jartzen ziren. Getxoztar ugarik, tradizioz, diru apur bat uzten zuten testamentuan ermita hau zaharberritu eta mantentzeko.

#### **Bentazarra** (Taberna)

Aingeruaren aurrean dagoen etxea, garai batean benta izan zena. batzuek Benta esaten diote. XVIII. mendean, bertako Benta zen.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 4

#### **Baserri** versus **aldekoetxe**.

Getxon eta Uribe Kostan erdarazko 'caserío' **Aldeko-etzé** edo **Alde-etzé** deitzen da. Orduan zer da baserria? Baserria, "aldekoetze" asko dauden parajea da (badago Getxon Baserri izeneko auzo bat).

Arte landaretik dator ARTE+AGA. Atzizki hori pluralarekin dago lotuta: ARTEAK > ARTEAG > **ARTEAGA**...

#### Arteaga(Auzoa)

Auzoa eta egungo etxe guztiek jatorri bera dute, garai batean egon zen lehenengo Arteaga etxea. Gaur egun azken arteak desagertzeko bidean egon arren garai batean Getxoko zuhaitz arruntenetako bat izan zen eta arestian egon dira ale eder batzuk Galea inguruan, azken mendean landatutako pinuek baztertu badituzte ere. Osagaiak (Quercus ilex) zuhaitz izena eta **-aga** atzizkia dira.

Auzo bat eratzen dituzte baserri hauek orain oso desitxuratuta baina duela ehun urte Getxo multzoz edo auzoz josita zegoen.

#### **Arteagaurrekoa** (Etxea)

Arteaga auzoko jatorrizko etxea. Izen honetan '**arte**' (Quercus ilex) zuhaitz izena eta **-aga** atzizkia ditugu. (Ahozko bilketan ikusten da Arteaga>Arteaa>Artea bilakaera hori baita azentua azken bokalean erortzearen arrazoia). Oso gutxi ikusten dugu, aldatuta dago eta. Hala eta guztiz ere gurutze bat dago teilatuan, lehen oso ohikoa zen, baina gutxi mantentzen dira (**Tosutxu** eta hau). Babesteko dira eta iparraldeko horman jarri ohi dira. Sineskeriak eta erlijioa nahasten da galtzear dauden elementu horietan.

Oikonimoen (etxeen izenak) datazio eskema:

- a) Izendapen askea, deskripzioa, ezaugarriak, ingurunea... (**Arteaga, Larrazabal**). XVI.mendera arte.
  - b) Etxearen kokalekua (**barria, goikoa, ostaikoa...**). XVII. Mendea. Arteaga-atze, Arteaga-aurre, Arteaga-barri, kokapen geografikoa. Nagusiarekiko.
- Beste adibide bat: **Goñi** inguruan dauden baserriak, **Goñibekoa, Goñibarra, Goñigoikoa, Goñitxu...**
- c) **-ENA** atzizkia. Leku txikietan (**Algorta, Portu Zaharra, Alango**). XVIII.mendea.
  - d) Euskararen galeraren hasiera: Erdalduntzea (etxe izen zaharrak, jabearen izena-edo, **-ena** ahul). XIX.mendea.
  - e) Jabeak jarritako izen modernoak, kontsultatuta edo ez. **Izen gabeko etxe** asko. XX.

### **Arteagaosteikoa**

XVII mendeko eraikina, orain erdia besterik ikusten ez dugun arren, beste erdia, mantentzen bada ere, oso ezkutatuta dago etxebizitzak egiteko. Dena den, oraindik ikus daitezke: espoloi bat, ataria eta inprenta goiko entramatura heltzeko.

### **Torretxe**

Baserria eredu berbera jarraitzen du. Aipatzekoa da bere fatxada ondo kontserbatuta dagoela, etxe-eredu hau da ugariena Getxon, espoloiaren artean egindako baserri bat eta atari bat bere inprentapean. Kasu honetan **Torretxe** izena ohikoa da baserriak edo nekazale-jauregiak izen hori hartzea prestigiogatik baina funtziorik gabe.

Ikusi dugunez, Getxoko baserri-eredua azaltzeko gai gara: espoloiak, egurrezko habea ataria irekitzeko, goiko aldean zurezko entramatua edo egitura, eta beti, jakina ataria hegoaldera.

### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAK 5

**Saratxaga**. mimena edo zumea, 'mimbre', ez da gauza bera baina familiakoa da hortik dator izena. SAHATS(A) [batua] edo SARATXA.

Inguru hau oso aberatsa fitonimoetan (landare izenek emandako toponimoak): **Arteaga, Gaztañaga (Gaztañatxu), Urretxaga, Salsidu** (salse edo sahats)....

### **Saratxaga** (etxea)

XVII. mendekoa da eta dorretxea zela esaten da. Lehen beste aldetzetan ikusi duguna errepikatzen da. Oso desitxuratuta egon arren, egitura berbera du (Kontutan hartu behar dugu, balkoiaren sarrera berria dela). Baina, interesanteena, atzeko partean dagoen hormaren konposizioa (XVI. mendean egina) da (zaharrena). Puntu-erdiko leiho estalita ere badago.

Etxe izen honen osagaiak **sarats** zuhaitz izena (Salix sp.) eta **-aga** atzizkia dira. Nahiz eta euskal ahoskera argia den eta "satzaga" edo horrelakoak esan, hemen zein Gorlizen, erdaraz Sarachaga moduan finkatu da.

Baserri zahar hauen bizi baldintzak erakusten dituen gertaera bat salatu zuten 1946an maizter bizi ziren familia batzuek oso denbora laburrean hiru seme-alaba galdu ondoren tuberkulosiatatik.

Alkateak bidalita inspekzio bat egin zen etxean bertan eta argi geratu zen batetik, baserriak ez zituela bizitzeko beharrezkoak ziren baldintzak betetzen, etxebizitza ez zen gauza bertan bizi ziren familia guztiak hartzeko; nahastuta bizi ziren bi sexuetako adin nagusiko pertsonak (honek garaiko moralari eragingo zion batez ere) eta ez zeukan komunik.

Sustapen batzordearen txostenean habita ezina izendatu zuten. Zorionez, urte batzuk beranduago arazo guzti hauek konponduta zeuden.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 6

**Larrazabal** izena zuten auzo eta etxe hauek, baina ez dakigu zergatik XIX. mendean izenaz aldatu eta **Moreaga** deitzen hasi ziren. Tamalez, ez dakigu zeintzuk diren izenaren osagaiak amaierako **-aga** alde batera utzita. Beran Morenea izeneko etxea dago eta XVIII. mendean Morea deitura ere badugu. Horretaz gain, gogoratu behar dugu Amore hitza, seguru asko pertsona izena, ere badugula.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 7

##### **Etxebarritxu** (Etxea)

Izen argia etxe hitzaz, **-barri** adjektiboa eta **-txu** txikigarriaz osatuta. Aipu batzuetan, ongi bilduta badaude, **Etxetxubarri** ere deitzen diote, argi azalduz txikigarria ez dagokiola adjektiboari, etxeari baizik.

##### **Zientoetxe**(Etxea)

Baserrri izena bada ere askoz ere ezagunagoa da estarta, gaur egun bidea, izateagatik. Baserrria 1766an dokumentatu dugu lehenengo aldiz eta apur bat lehentsuago eraikiko zen, ez baita 1745eko zerrendetan ageri. Izenaren osagaiak argiak dira **ziento** eta **etxe**, baina esanahia iluna, ez baita erraz ulertzen, egitura eta osagaiak bereziak baitira. 1913an Udalak hondartzetara joaten zen jendetzari erraztasunak ematearren, Andra Maria elizatik Gorrondatxe hondartzaraino bide berria eraikitzea erabaki zuen, baina lanak ez ziren 1917 urtera arte hasi.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 8

**Kurtzia** landa hauetan aztarnategi zaharrenetariko bat dago. Barrikara heltzen da eta bere funtzioa "industrial" da. hemen sukarrri asko aurki daiteke eta hori funtsezkoa da paleolitoan. Material asko aurkitu da azalean zein zundaketetan, eta Erdi paleolitokoa da, (duela 200.000.urtekoa).

Itxura denez "Pinus pinaster" pinua (pino marítimo) Getxo inguruan gizakiak landatutakoa da. Beste kontu askoren artean Alfred Llorente botanikoak hauxe dakar "Bizkaiko kostaldeko ekosistemak. Getxoko Kostaldeko landaredia (2007)" liburuan: Euskal Herrian, badirudi Arabako hego-mendebaldeko eremuan soilik sortzen dela bat-batean, hain zuzen ere, babestutako amildegietako lurzoru hareatsuen gainean. Gainerakoan, batez ere kostako bandan, baso-espezie gisa landatu da". (167.or.) "XIX. mendearen amaieratik, kostako eremu batzuetan itsas pinua (Pinus pinaster) landatzearen bitartez gauzatu da giza ekintza. Espezie hori ondo moldatu da kostaldean eta gainera hazkuntza azkarra du. Aipatutako landaketak Galea Puntan, Gorlizan... aurki daitezke". (89 or.)

Llorentek itsas pinua espezie aloktonotzat jotzen du Getxon eta gaineratzen du horrelako espezieek itsaslabarretako berezko espeziak desagertzea eragiten dutela. Dena dela, milazka (tamarisco, 'Tamarix gallica') bertako espeziea omen da.

"**Salvaje**" deitzen zaion hondartzaren Getxoko aldeari **Barinatx** (Barinoa, inguruko baserri baten izena+atx) esaten zaio eta Sopolako aldeari **Solondota** (solo-ondo-eta).

**Barinatx-e** honetan **-e** paragogikoaren kasua dugu: Miarritze, Parise diote iparraldekoek: zergatik? Nondik zatoz? Parisetik. Nora zoaz? Parisera. Azkenean hitza: PARISE. Berdin **Barinatxe**, **Gorrondatxe**... Normalizatzeko egokienak **-e** bakoak; hau da **Barinatx** eta **Gorrondatx**.

## GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 9

### **Askorri** (Lurmuturra)

Izenak argi dioen bezala haitz gorria da Askorri eta ez horren aldean dagoen hondartza. Osagaiak **atx**, konposatuetan kontsonate aurrean **as-** eta **gorri** dira. Ondorioz argi dago Askorri idazkera ez dela egokia. Askorri, Aizkorri, Azkorri... zelan idatzi? **ASKORRI**. Zergatik? ATX+ GORRI. 'Gorri' hitzak ez du beti 'rojo' adierazten, adibidez: negu-gorria (gogorra), larru-gorri. 'Hutsa' esangura ere badauka.

### **Gorrondatxe** (Hondartza)

**Gorrondoa** etxe izenez eta **atx** 'haitz' hitzaz osatutako izena. Argi dago idazkera egokia **Gorrondatx** dela, baina **-e** paragogikoak hartu duen hedadurak zailtzen du izen hori hobestea. Gorrondoa etxeak Berangon daude eta handik dator izena. Hondartzetara joatea modan jartzeak Bizkaiko hondartzen izenen kontrako "erasoa" ekarri zuen jendea ez zitzaien gehiegi axola izenak ikastea eta bururatzen zitzaizkien lehenengo erabiltzen hasi zen. **Ereaga** hondartza **Neguri** edo **Las Arenas**-ko hondartza bihurtu zen deustuar askorentzat. Kasu honetan, **Gorrondatxe** eta **Solondota/Barinatxe** hondartzen artean dagoen **Askorri** atxaren izena nagusitu zen hondartza izendatzeko.

Geologia: Hondartza hau nahiko irekia da, bere harea iluna eta larria da eta bere harea erabat zementatuta dago. XX. mendean zehar, Labe Garaietako (Altos Hornos) karbonatoetan aberatsak ziren eskoria hondakinengatik. Hondartza honetan aurkitzen diren hondar-gune zabalean kaltzio karbonatoa prezipitatu egin da hare aleen artean, harri kontsolidatu baten ezaugarriak emanez. Hain zuzen ere, 4 m lodiera duen geruza bat eratu da. Hareak adreilu puskak, iltzeak, plastiko zatiak, latak, txanponak..... eta industria-hondarrak ditu bere baitan. Fenomeno hau Getxoko hiru hondartzatan ikus daiteke: **Arrigunagan**, **Tunelbokan** eta **Gorrondatxen** (baina Tunelboka hondartzan nagusitzen da)

Ageriko harkaitzek 50 milioi urte dauzkate. Oso ondo kontserbatuta daude. Bertan flysh formazioak ikus daitezke ( Formazio sedimentario detritikoa, hainbat sedimentu (hareharrizko, kararrizko, buztintsu, eskistotsu, etab.en) txandakatuz osatua eta orogenesiaren fase nagusien aurreko geosinklinaletan sortua).

Gorrondatxe-Azkorri hondartzan urrezko iltzea ipini dute (2012-2-13)

Geologia Zientzien Nazioarteko Batasunak **Gorrondatxe** hondartzako itsaslabarrean dauden estratuek duten balio geologiko izugarria aitortu du, Lutetiar aro geologikoko munduko estratotipo erreferente izendatuz ofizialki. Horregatik, hondartzan azaleratutako sekzioaren geruzan urrezko iltze bereizgarri bat jarri dute. Bereizgarri horren bidez, estratigrafiaren alorrean bitxiak diren eta ezaugarri bereziak dituzten lekuak aintzatesten dituzte adituek. 48 milioi urte inguru dituzten estratuak dauden toki berean ezarri dute bereizgarria. "Estratotipo izendapena lortzeko, lekuak

baldintza batzuk bete behar ditu; besteak beste, eskura egon behar du, geruzasekuentzia osatua izan behar du, ez ditu arazo tektonikoak (failak, tolesdurak...) izan behar, eta mikrofosil asko izan behar ditu, egoera onean. Gainera, gomendagarria da analisi paleomagnetikoak egiteko aukera izatea ere. Bada, frogatu dugu Gorrondatxeko labarrek baldintza horiek guztiak betetzen dituztela”.

Lutetiarrean, Gorrondatx hondartza, arroka eta sedimentuak, eta bere inguru osoa itsas hondoan zeuden, mila metro inguruko sakoneran, eta planetako tenperatura gaur egungoa baino beroagoa zen. Arroketan geratu dira idatzita eta itsatsita gure planeta, Lurra, sortzean eta haren bilakaeran izandako gertaera zenbatezinak. Harri horietan dago idatzita Lurraren historiaren zati bat. Historia luzea, bada, geologoek berriro asmo dituzten gertaerez beterikoa. Lurraren azaleko hainbat lekutan azaleratutako haitzetan gordeta geratu den informazioa ikertuz eta "irakurri" berriro gura duten historia, ondoren arroka horiek denbora geologikoen eskalan antolatzeko. Eskala hori denborazko eremu bat da, balio globalekoa, denbora-tarteetan banatzen dena (eona, aroa, periodoa, epoka eta estaia), eta haren definizioa estratigrafian oinarritzen da, hau da, sedimentuak batuz eratzen diren haitzetan agertzen diren estratu edo geruzen ikerketa eta interpretazioan.

Kosta oso gizarteratua ez badago ere (zorua eta eguraldia txarra baita) azken mendeetan okupatu egin da: Bunkerrak adibidez. Hemen ikusten dena Frankok egin zuen (agindu) ustezko inbasioa saihesteko. Eta kanpotik ekarritako zuhaitzak landatu ziren; kasu honetan itsas pinua.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 10

**Alpenarri, Asbiribiltza** eta **Batiz** deitzen dira kostaldeko sartu-gune eta irten-guneak eta guztiari Galea deitzen zaio.

**Galea** izenak amildegi, lurmuturra eta inguruan dagoen leku zelai handia izendatzen du. Gaur egun golf zelaia dagoen ingurua herri lurra izan zen getxoxtarrek abereak eramateko, beste herri lurrak bezala. XIX. mendean udalak saldu behar izan zuen.

Egun inguruan zer dagoen ikusta deigarria da 1881ean esaten zena: "*Está destinado a pasto comun gratuito y recreo de ganados. Produce yerba para ganado y para argoma para consumo de los vecinos convertida en abono.*"

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 11

**Tunelboka** edo **Kakaleku** izenak ematen zaizkio bertan itsasoratzen baitzen Bilboko estolderiako ur zikinak. Gaur egun bertan behera utzita dago. Urak Elorrieta (san ignazio auzoa eta Erandioren artean) auzoan zeuden bonbek bultzatzen zuten.

Bilbo izan zen penintsulan ur zikinen trataeran aitzindaria. 1885ean kolerak jo zuen Bizkaia eta Bilboko Udalak saneamendu konkurtsoa egin zuen 1891an.

Recaredo Uhagonek irabazi zuen. Proiektu honek 100.000 biztanle kopuru aurreikusten zuen. Ur zikinak **Deustuko Erriberara** bideratzen ziren eta **Elorrietan** zeuden bonbek bultzatzen zuten 10.123 metroko tuneletik **Galearaino**. Lanak 1895ean hasi eta 1903an amaitu ziren, eta euritik bereizi ondoren, hondakin urak itsasora bidaltzen ziren. Tuneletara jeisteko Malakate izeneko etxolak zeuden (malakate berez lanabes bat da: zilindro batean kable bat lotzen da eta pisuak gora eta behera garraiatzeko balio du). Gerra zibilean babesleku bezala erabili ziren etxola

horiek abioiek Getxo bonbardatzen zutenean (adibidez **Gaztañagatzuko** biztanleak bertan babestu ziren).

Goiko aldean harea eta harria igotzeko erabiltzen ziren tresnerien (garabien) aztarnak daude, izan ere, 1958an itxi zen arte, Arenas del Cantabrico enpresak bertako harea erabiltzen zuen etxegintzarako.

Geologia: **Tunelbokako** hondartza **Galeako** itsaslabarren artean dago. Hondartzako harea erabat zementatuta dago. XX. mendean zehar, Labe Garaietako (Altos Hornos) karbonatoetan aberatsak ziren eskoria-hondakinen eraginez. Hondartza honetan aurkitzen diren hondar-zona zabalean kaltzio karbonatoa prezipitatu egin da hare aleen artean, harri kontsolitatu baten ezaugarriak emanez (gogoratu harri edo arroka bat sortzeko prozesua milaka urteetako dela). Hondartza honetan olatuen erosioa ere nabaria da.

## GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 12

**Abra...** (izen generikoa Izen berezi bihurtuta, gurea bakarra bailitzan)

Elementu bitxiak ditugu. Alde batetik itsas argia, orain GPSek alboratua. Hemengoa 1950ean eraiki zen eta ez da oso deigarria, garrantzitsua izan arren **Kantauri** itsasoan. Lehenengoa 1852an eraiki zen, baina amildegi ondoan zegoenez lubiziengatik barrurago aldatu zen.

Geologia: Bizkaiko Sinklinorioa da eskualde horretan aurkitzen den garrantzi handieneko akzidente geologikoa (baina ongi ikusteko itsasotik behatu behar da). Bizkaiko sinklinorioa lurraldea NWtik SEra zeharkatzen duen tolestura handi bat da. Galea Muturreko itsas labarrak perpendikularki ebakitzen du egitura hori, eta horrela geruzen tolestura nabari daiteke. Iparralderanzko okertze ahula da. Materialik modernoek sinklinalaren gunekoak dira.

Labarretan eta marearteko lautada arroksuetan ongi ageri da haitz sedimentarioen flysh egitura. Bizkaian aipagarriak dira **Galeatik Ermuaraino** doan sinklinalako numuliteak eta narrastiek zein itsasaldiek hareharrietan utzitako arrastoak.

Rasa mareala: itsasoaren azken aurrerakadan (transgresioan) itsas maila igo egin zen eta eremu hau urpean gelditu zen, olatuen eraginpean. Erosioz sortu zen marea-rasa deituriko lautada hau. Geroago berriro itsas maila jaitsi zenean, kosta zaharra esekita geratu zen gaurko kostaren gainean.

Bilboko Abra, Nerbioi ibaiko azken atalean dago. Azken mende honetan asko aldatu da. 70.ko hamarkadan, Europako lekuri kutsatuenetariko bat zen. Izan ere bai biodibertsitatea zein uraren egoera oso txarrak ziren. Materia organiko ugari zegoen uretan baita materia toxikoa ere.

Horretaz gain, ura oso arrea zegoen eta oxigeno maila baxuegia zen. Kutsaduraren eragina oso larria zen biodibertsitatean, egia esan, edozein bizitza mota ia desagertu zen ibaitik.

Hori dela eta, 1979an agintariak itsasadarra garbitzea erabaki zuten. Harrezkero egoera asko hobetu da. **Abra**ko kanpoaldean, **Arrigunagan**, itsasertzeko eremuan (mareartean eta mareazpian) kutsadura zela eta, eremua biologikoki txarra zen. Gaur egun urak oso garbiak dira eta biodibertsitatea oso handia da fauna eta flora ugariarekin.

Bilboko **Abra**n flora eta faunako aberastasuna egundokoa da. Biodibertsitatea gero eta handiagoa denez, autogarriketa prozesua gertatzen da eta arrain, ornogabe eta



organismo franko etortzen dira janaria eta babesaren bila. Apika etorkizunean izurdeak, fokak edota beste itsas ugaztun batzuk ere ikusi ahal izango dira.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 13

**Printzearen gaztelua** edo **Galeako** gotorlekua dago, barruan beste dorre bat duena. Jendeak itsasargia dela uste du, baina ez da hori bakarrik, Talaia izan zen: talaia horiek oso zaharrak dira (hau ez hainbeste). Bere funtzioak: militarrek (kostako kontrolerako) eta garrantzitsuena da merkataritzarako dira: Hortik jakin daiteke zer itsasontzi datorren zerekin eta zer laguntza behar duen (atoian eramateko, erosteko...) Bere kokapena interesantea da herritik ikusi behar baita.. XVIII. mendeko gotorleku ikusgarria da.

1740an Ingalaterraren kontra gerran omen geunden eta horregatik egin zen gotorleku hau; Bilborantz zihoan itsas merkataritza zaintzeko. Gotorlekua Jaime Sycre ingeniariak diseinatu zuen, eta obrak 1742an hasi ziren. Fuertea oso elementu garrantzitsua da Getxon, baita Bizkaian ere. Gaurdaino iritsi den XVIII. mendeko eraikuntza militar bakarra da Bizkaian. Egitura izatez zaharragoa zen; XVI. menderako batera batzuk bazeuden, baina ikusten dena 1742an egin zela.

DESKRIBAPENA: Galea gotorlekuaren barruan aurkitzen da talaia hau. Dauden azpiegituren artean, talaia edo seinero-postu baten funtzioekin lotuta dago barrutiaren erdian dagoen dorre zirkular handia. Hareharrizko harlanduz eginda dago, eta eskailera kiribil bat dauka barnealdean goiko terrazara igo ahal izateko. Ez dago oso ongi zainduta. HISTORIA: XVI. mendekoak dira «Galerako» edo Galeako seinero-postuari eta bateriari buruzko lehenengo aipamenak, eta Merino Urrutiak dioenez, Bilboko Kotsulatuak farol bat jarri zuen bertan 1782an, eta beste bat Luzero lurmuturrean. Gotorlekuaren barruan dorre handi bat eraiki zen 1791n, ikurrinekin seinaleak eginez Bilboko itsas zirkulazioa arautu ahal izateko. Dorre hori gaur arte mantendu da, oso egoera onean ez badago ere. 2006-2007an garbitu egin zuten, eta ikerketa dokumental bat eta arkeologiko bat egin zituzten bertan.

Getxoko beste talaia: **Talaieta** (Arrigunaga gainean) eta **Erriberamune** (Portuzarra) dira. Atalaia-talaya, Etimologia: arabe hizkuntzatik: 'atalayi' zelatariak (los centinelas) dator.

#### GETXO KOSTALDEA BIZIKLETAZ 14

Hilerrien historia: Erdi aroan, erromanikoan, eliza inguruan zeuden hilobiak, XV. mendean elizan sartzen da, leku santua bilatzen. XVII. mendean ordena jartzen zen barruan eta zurezko egitura eratu zen. Familiak hilobi bana zuten elizan, bere izenarekin eta, normalean, baserriari helduta. Demografia hazi ahala, arazo bihurtzen da. Gainera higienismoa eta halako pentsamenduak inposatzen dira. Errege askok agintzen dute elizatik ateratzeko hilerriak. Ez zen bete. "Pepe Botellak" ere agindu zuen baina denbora asko behar izan zen horrekin amaitzeko (Pepe Botella, Jose Bonaparte zen. Napoleon España inbaditu bezain laster, bere anaia jarri zuen boterean, errege modura. Oso popularra ez zen eta jendeak "Pepe Botella" jarri zion goitizena, edatea gustatzen omen zitzaiolako.

Oso ospe txarra izan arren, inbaditzailea izateagatik, oso modernoa zen eta Europako politikak (hemengoak baino modernoagoak) jarri nahi zituen Espāñan. Berak hilerriei buruzko arauak jartzen saiatu zen, beste erregeak bezala). XX. mendean ere dokumentatzen dira hilobiak eliza batzuetan. Hala ere, XIX mendean hilobiak apurka

ateratzen dira. Bertan, parrokia bakoitzak bere hilerria izango du eta Getxon bi egongo dira: San Nikolasen (goikoan ez Portu Zaharrekoan) eta Andra Marin.

XIX. mendean Udal hilerria denboraldi batez Algortan egon zen (1863an bedeinkatua) "Campa del Muerto" deitzen zioten baina berehala geratu zen txikia eta orduan egin zuten Getxon egin zuten, Andra Marin. Hau ere berehala geratu zen txiki; oraingoan hazkunde demografiko handiagatik..

Oraingo hau 1908 egin zen, horregatik, besteak, hiri erdian zegoen San Nikolasekoa itxi zen 1907an (eta bota 1925ean) eta **Andra Marikoa** zabalik egon zen 1952ra arte arrazoi juridikoengatik baina 1965ean bota egin zuten.

Horretaz aparte, hemen inguruan erromatarren aztarnak topatu zituzten 1997an; zeramika eta familia baten burdinola txiki bat agertu ziren.